

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2015eko uztailaren 17an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Jean-Baptiste *Battittu* Coyosi; Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Andres Iñigok ahala Patxi Zabaletari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala

Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdai ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Osoko bilkura, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren uztaileko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2015-05-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Miren Lourdes Oñederrak bi iruzkin egin ditu. 6. orrialdean, hirugarren paragrafoan, «M. L. Oñederrak ere bere

harridura erakutsi du P. Uribarreni proposamena ondu zezan eskatu ziolako Zuzendaritzak» esaldiaren bigarren zatia honela ager dadin eskatu du: «M. L. Oñederrak ere bere harridura erakutsi du bakoitzak bere aldetik egindako proposamenak bildu ondoren ari garelako eztabaidatzen Arabako urgazle berrien kopurua, bestelako irizpide eta gainerako lekuetako urgazle kopuruak aintzat hartu gabe». Eginiko zuzenketa onartu da Osoko bilkuran.

Bigarren oharrari dagokionez, azkeneko orrialdean, Joan Mari Torrealdaireren egoeraren berri eman aurretik, 6.3. hurrenkera daraman ondoko testua jaso dadin eskatu du: «6.3. M. L. Oñederraren galdera Barne Jardunaldiez. Jakin nahi luke nola programatu ziren hiru ordu bakarrik, garbi zegoenean alde zuretik ez zela denborarik izango egitasmo eta batzorde guztiek beren lana aurkez zezaten, bakoitzari hamarna minutu bakarrik emanda ere. Euskaltzainburuak erantzun dio ez dagoela dirurik denon egoitza ordaintzeko».

Proposaturiko testuaren azkeneko esaldia dela eta, A. Urrutia euskaltzainburuak harridura agertu du bere izenean berak esan gabeko esaldi bat jartzea nahi delako. Gauzak horrela, M. L. Oñederrak esanikoari buruz berak erantzun zuena zehatz azaltzeko eskubidea gordetzen eta hurrengo Osoko bilkuran hala egingo duela adierazi du euskaltzainburuak. Horiek horrela, 2015eko maiatzaren 29ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da, M. L. Oñederrak eginiko iruzkina eta euskaltzainburuaren erantzuna irailean aztertzeko utziz.

2. Osoko bilkurako (2015-06-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko babiliz

Oharrik egon ez denez, bilera-agiria bere horretan onartu da.

3. Euskaltzain urgazleak izendatu: Araba

A. Urrutia euskaltzainburuak Baionako Osoko bilkuran jakinarazi zuenez, euskaltzain urgazleak izendatzeko Osoko bilkurak ezarritako prozedura kontuan hartuz, Zuzendaritzaren ekimenez, Araban bizi diren euskaltzain osoekin (M. L. Oñederra, B. Atxaga eta J. Lakarra) eta, Barne-erregelen arabera (4.2 xedapena), Araba ordezkatzeko duen euskaltzain osoarekin (P. Uribarren) bilkura egin zen, 2015eko ekainaren 16an. Bilera horretan adostu zen, aho batez, hautagaien kopurua sei izatea, bai eta izenak ere. Adosturiko zerrenda Baionan eginiko Osoko bilkuran aurkeztu zen. Ondoren, hautagai guztiei euskaltzain urgazle izateko prest ote dauden galdetu zaie, baiezkoa izanik guztien aldetik idatziz jaso den erantzuna. Harrezkero, bestelako proposamenik ez da jaso.

A. Urrutiak bestelako proposamenik Osoko bilkuran aurkeztu nahi den galdetu du. Inork halakorik egiteko asmorik agertu ez duenez, segidan, euskaltzain urgazlegaien zerrendako kideak banan-banan ala taldean bozkatzeari nahi den galdetu du. Bozkatzekotan, talde gisa bozkatzeari adostu dute euskaltzainek. Ondoren, zerrenda hori isilpeko eta idatzizko bozketa bidez ala atxikimenduz onartzea nahi den galdetu du. Inork ez du bozketarik eskatu, beraz, atxikimenduz onartu da euskaltzain urgazlegaien proposamena.

Gauzak horrela, 2015eko uztailaren 17an, Donostian, Luis Villasante Euskaren Ikerlanean, ondoko pertsona hauek euskaltzain urgazle izendatu ditu Euskaltzaindiak:

IZENA	ABIZENAK	AURKEZPEN LABURRA
RICARDO	ARREGI DÍAZ DE HEREDIA	Gasteiz (1958). Salamancan Psikologia eta Irakasle ikasketak egin zituen. Euskal Filologian lizentziaduna. Idazlea.
ROBERTO	GONZÁLEZ DE VIÑASPRE GONZALO	Bilbo (1961). Trebiñu Konderrian bizi da. Euskal Filologian lizentziaduna. Onomastika batzordekidea. Onomastikari buruzko hainbat azterlan.
KARMELE	JAIO EIGUREN	Gasteiz (1970). Informazio Zientzietan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Kazetaria eta idazlea.
IÑAKI	MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA	Gasteiz (1950). Soziologian doktorea. HIZNETen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen zuzendaria (1986tik). EABko kidea. Soziolinguista.
PATXI	SALABERRI MUÑOZA	Aramaio (1956). Euskal Filologian doktorea. UPV-EHUko irakaslea. Gasteizko Irakasle eskolako zuzendaria (1997-2000). Euskal literatura klasikoan aditua (XVI eta XVII. mendeetako idazleak eta obrak ditu aztergai nagusi). Liburuez gainera, hamaika artikulua ditu argitaraturik.

BLANCA	URGELL LÁZARO	Gasteiz (1962). Irakaslea eta filologoa da. Euskal Filologian doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularraren (2002tik). <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> lan egindakoa. MLV ikerketa taldeko kidea da. Lexikografian aditua.
--------	---------------	--

Idazkariordeak, datorren astelehenean, uztailaren 20an izendapenen berri emango dela jakinarazi die euskaltzainei.

Euskaltzain urgazleak izendatu ondoren, goizeko 10:50 direnean, Euskaltzaindiaren eta EIZIE Elkartearen artean lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko, bilera ete-erabaki dute euskaltzainek. Atsedenean ondoren, 12:00ak direnean, Osoko Bilkurari segida eman zaio.

4. *Hiztegi Batua*: 2. itzulia.

4.1. Aroak (jarraipena). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki. A. Sagarna eta M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek aurreko Osoko Bilkuran aztertu gabe utzitako Aroen azkeneko zatia jorratu dute. Horrexetarako, ekaineko bileran euskaltzain batek eskatutako taula osatua aurkeztu da bileran, proposamenen argigarri. Euskaltzain osoek oharreztatutako *kanbriar*, *kanbriar*, *kanbriar*, *kretazeo*, *ordoviziar*, *permiar*, *siluriar* eta *pebble kultura* onartu dira, azken hau *kultura* sarrerako azpisarrera gisa. *Priskoar* forma isildu egin da, gaur baztertua baitago, eta horren ordez *hadear* dabilelako. Hain zuzen, forma hori berreskuratu da. *Arkear* forma 2015-06-26ko Osoko Bilkuran hirugarren itzulirako uztea erabaki zuen Osokoak, *arkear/arkaiko* gatazka zela-eta, baina taula kronoestratigrafikoa osatzeko beharrezkoa da formaren bat eta nazioarteko forma hedatuena fr *Archéen* / en *Archean* denez, eta Nazioarteko Taula Kronoestratigrafikoaren (NTK) euskarazko bertsioak ere hala jaso duenez, forma hori hobestea onartu da.

4.2. Arrazak, diru zaharrak eta txanponak

Arrazen aztergaia. Jarraian langai honen ondorioak aurkeztu dira.

Atal honi, Miren Azkaratek, X. Kintanak, P. Uribarrenek eta X. Videgainek aurkeztu dizkiote oharak.

Besterik gabe onartu dira Hiztegi Batuko lantaldeak proposatutako 18 forma, eta isiltzeko proposatutako beste 142 forma isiltzea berretsi. Aurreko itzulitik arautua

zegoen *artzakur* formari «iz. g.er. “artzain-txakurra”» gehitu zaio. Ondoren, oharren bat jaso duten formak aztertzeari ekin diote euskaltzainek, animaliak antolatuta.

Ardien sailean, eta *ardi* sarrerako azpisarrera gisa, onartu dira *ardi euskal-bearnotar* (*euskal-biarnesa arraza* isilduz), *Lacaune ardi*, *limusin ardi* (eta *Limousin ardi* isilduz), *rasa ardi*, *txurra ardi* eta *manex ardi* (lehen sarrera baitzen). Lehendik *latx* sarrerako adibide zen *ardi latx* azpisarrera izatera pasatu da. *Merino* formari sarrera eman zaio *ardi merino* adibidea jaso ahal izateko, baina «pertsona izendatzeko, erabil *merio*» adiera gehituz).

Behien atalean *blonda* arautuari arraza eta *Akitaniako blonda* adibidea gehitu zaizkio, eta *behi* sarrerako azpisarrera gisa *behi piriniotar*, *Flandriako behi*, *limusin behi*, *montxina behi* eta *terreña behi* jaso dira. *Xaroles* onartu egin da, *txaroles* eta *charolesa* baztertuz. *Bertziana* eta *suitzar arre* isildu egin dira. *Behi gorri*, lehendik adibide gisa arautua zegoena, azpisarrera gisa jasotzea onartu da, eta *behigorri* erabiltzen den begiratzeko eskatu zaio lantaldeari.

Txakurren sailean arrazak jaso dira batetik, eta hainbat txakur-arraza ala mota biltzen dituzten forma erabilienak ere jaso dira bestetik. Arrazen kasuan onartu dira *dogo* (eta *dogo argentinar* adibidea, *argentinar dogo* baztertuz), *bull terrier*, *chihuahua*, *chow-chow*, *cocker spaniel* (*cocker soila* isilduz), *dalmaziar*, *daniar handi* (*daniar* sarreran azpisarrera gisa), *Enkarterriko billano*, *billano*, *eper-txakur* (azpisarrera *eper* eta *txakur* sarreretan), *fox terrier*, *patxoi* (eta adibide gisa *Gasteizko patxoi* eta *Nafarroako patxoi*), *labrador* (izen propiotikoen sailean ere onartua zegoena), *pitbull*, *rottweiler*, *txakur afganiar* eta *txakur pekindar* (*txakur* sarreran azpisarrera gisa) eta *euskal untxari* (*untxari* sarreran). Arraza ez direnen artean hauek onartu dira: *collie*, *spaniel*, *husky*, *mastin*, *setter*, *terrier* eta *untxari*. *Azeri txakur* sartzeari proposatu dute euskaltzainek (*azeri* eta *txakur* sarreretan), eta *Labrit txakur* (ala *labrit?*) begiratzeko eskatu dute. Isildu egin dira *Alaskako malamut*, *billanuko*, *zakurrihiztor*, *epagneul* eta *polizia-txakur*.

Zaldietan, *zaldi* sarrerako azpisarrera gisa jaso dira *zaldi arabiar*, *Aurizko zaldi* (*Aurizberriko zaldi* isilduz) eta *Euskal Herriko mendiko zaldi*. *Comtois* ere onartu da, eta *boulonnais*, *Kamargako zaldi*, *Kastilloneko zaldi* eta *odoleko* isiltzea onartu da.

Txerrien sailean *Baxtango txerri* eta *euskal txerri* jaso dira *txerri* sarreran, eta *muturmotz*, azpisarrera gisa *Gasteizko muturmotz* gehituz, baina azken hau *Gasteizko* ala *Arabako* den begiratzeari eskatu zaio lantaldeari.

Asto sarreran *Enkarterriko asto* eta *euskal asto* azpisarrerak jasotzea onartu da. Bestelakoetan, *katu persiar* (s.u. *katu*), *euskal antzara* (s.u. *antzara*), *euskal oilo* (s.u.

oilo, eta *euskal oilasko* isilduz, ez baita arraza), *Flandriako untxi* (s.u. *untxi*), *hartz arre* (lehendik adibide gisa arautua zegoena horrela utziz, ez baita arraza, espeziea baizik) eta *euskal arrazako kapoi* (s.u. *kapoi*). Isildu egin dira arraza ez diren *lumagorri*, *arrazata autoktono* eta *Euskal Herriko arraza*. Exonomastikarentzat uztea erabaki da *frisiar* (-tar osaerakoetan erabaki zen hau) eta, ondorioz, *behi frisiar*.

Diru zaharrak. X. Kintanak eta P. Uribarrenek aurkeztu dituzte oharrak.

Sail honetan, oharrik egin gabeko 31 forma ontzat eman dira eta 93 isiltzeko proposatuak isiltzea berretsi. Oharretatuen inguruan hau da onartu dena: *bost duroko*, *bost sarrerako* azpisarrera gisa jasoko da. Lehendik araututako *otxin* sarrerari *hogei otxineko* azpisarrera gehituko zaio, *piastra* arautuari kategoria eta 'errupiaren frakzioa' informazioa gehituko zaio, eta *libera* sarrera moldatu egingo da, Frantziako diru zaharraz gain, adiera berri batean 'hainbat lekutako dirua' jasoz. *Sucre*, Ekuadorko diru zaharra, bere horretan onartu da, eta *sueldori* sarrera ematea erabaki da, baina *Naf*. bakarrik den begiratuko da eta adibide argigarriren bat gehituko da. *Lepton* eta *libera eguzki* ia erabili gabeak isiltzea erabaki da.

Txanponen atala. X. Kintanak eta P. Uribarrenek aurkeztu dizkiote oharrak.

Gauzak horrela, oharrik gabe onartu dira lantaldeak proposatutako 132 forma berri, eta isildu 35. Oharrak egin zaizkien formen artean, *manat turkmenistandar* *manat* sarreran azpisarrera zena, sarrera propio gisa jasotzea onartu da. Horrekin batera, *shekel* (Israelgo dirua) jasotzea ontzat eman da. *Libera* sarrera diru zaharren aztergaiaren erabakitakoaren arabera onartu da. Exonomastikarentzat utzi dira *bolivar* (Venezuelako dirua), *boliviano* (Boliviako dirua), *colon / kolon* (*costarricar*, *salvadortar*), *cordoba* (Nikaraguako dirua), *grivnia / hriivnia* (Ukrainako dirua) eta *ouguiya / uguiya* (Mauritaniako dirua).

5. Esku artekoak.

5.1. Juan Garmendia Larrañaga ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena. Jose Mari Velez de Mendizabal Azkarraga euskaltzain urgazleak prestatuko du, Zuzendaritzak 2015eko uztailaren 8an harturiko erabakiaren arabera.

5.2. Emile Larre euskaltzain emerituaren hilberri txostena. Jean-Baptiste Dirassar Hiriart-Urruty ohorezko euskaltzainak prestatuko du, Zuzendaritzak 2015eko uztailaren 8an harturiko erabakiaren arabera.

5.3. Etxebarriko gordailua atontzeko eta arintzeko erabakia. Euskaltzaindiko zuzendaritzak, 2015eko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Etxebarriko gordailua

atontzea eta arintzea erabaki zuen. Helburua, Etxebarriko gordailua berrantolatzea eta arintzea da, behar ez direnak botaz, lekua eginez eta Etxebarriko gordailua kudeatzeko erraztasunak sortuz. Horrexetarako, biltegirotuta dauden argitalpenak lau multzotan sailkatuko dira (katalogo bizia, gordetzekoak, deskatalogatzekoak eta botatzekoak). Deskatalogatutako eta botatzeko aleak desagerrarazi aurretik, euskaltzain oso, ohorezko, urgazle, batzordekide eta langileei eskainiko zaizkie. Banaketa argitalpen zerbitzutik kudeatuko da, uztail-iraila bitartean.

5.4. Hurrengo bilkurak. Iraileko osoko eta ageriko bilkurak Elizondon egingo dira irailaren 25ean.

Osoko bilkura Udaletxean egingen da, goizeko 10:00etatik aurrera. 13:00ak aldera, *Nafarroa Oinez* dela eta, ikastolak dituen bi eraikinak bisitatuko dira. Arratsaldean Ageriko bilkura egingo da Arizkunenea Kultura Etxean. Ageriko bilkura honetan, Mariano Izeta ohorezko euskaltzaina gogora ekarriko da, 2014ko azaroan erabakitakoari men eginez.

6. Azken ordukoak.

6.1. P. Zabaleta euskaltzainak adierazi duenez, aurrekoan, Espainiako telebistan, albistegiaren ondoren, iluntzean, ONCEren eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko lankidetzahitzarmenaren berri eman zen, bai eta B. Etxepareren liburua itsuek irakurtzeko hizkuntza eta sistemetara egokitua izan dela jakinarazi ere.

Eta beste aztergairik ez dela, 14:20 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria